



Anjel Figueroa

GOSE GREBAN

EGOERA LARRIAN

Anjel Figueroa (Algorta) uztailarien 23tik hona gose greban ari da Langraitzeko espetxean osasun eta bizitza eskubidea bermatuko dituzten bizibaldintzak exijitzeko.

Anjelek "Grand Mal" edo "Seizure" izenez ezagutzen den epilepsia larria dauka. Espetxean gaixotasuna areagotu eta 2006ko maiatzean garunetako operazio korapilatsu eta arriskutsua egin zioten Gurutzetako ospitalean.

Ebakuntza horrek ez zuen nahi ziren emaitzak izan eta gaur egun krisialdi epileptiko etengabeak dauzka, konortea galtzen duelarik, eta tartean absentziak, memoria galerak eta aluzinazioak ere izaten ditu.

Bere tratamendua daramaten medikuen arabera, gaixotasunari aurre egin ahal izateko, medikazioa zorrozki hartzeaz gain, ordutegi aldaketak, loaren gabezia eta krisialdiak eragin ditzaketen estres egoerak ekiditea ezinbestekoa da. Bizibaldintza hauek, ordea, ez dira inolaz ere betetzen espetxean aplikatzen zaion bizimoduan.

Anjelek adierazi du jakin ere badakiela bere osasun egoeran gose grebak ondorio larriak izan ditzakeela, baina jasaten dituen bizibaldintzek ez diotela beste aukerarik ematen.

Gaur egunean hamabi dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten euskal preso politikoak. Espainiako gobernuak preso hauen bizitzarekin jokatzeko ari da eta txantaia eta presio politikoa egiteko erabiltzen ditu Euskal Herria menperatzeko daraman errepresio estrategiaren barruan.

ASKI DA! Euskal preso politikoaren osasun eskubideak errespetatu!

GAIXOTASUN LARRI ETA SENDAEZINAK DITUZTEN PRESOK ASKATU!

ANJEL ASKATU!

